

MUSIKA

Eman aukera su hari



IBON GOIKOETXEA

XALBA RAMIREZ

Jakin behar da trantsizioak ondo egi-
ten eta bukatzen. Bideak hasi eta er-
dibidean geratzeko arriskua izaten du
erabakiak eztabaidatzen katramilatzen
denak. Komunistek dioten taktika eta es-
trategiaren arteko eztabaida, badakizue.
Madeleine taldeak *Su Hura* (2018) lanean
hasitako bidea burutu eta bere estiloa
ondo finkatu duela esango nuke *Ezin Dena*
(2021) diskoan.


Konfinamenduan konposatu dute eu-
ren etxeetan, eta lokalean partekatu ostean
Eñaut Gaztañagarekin grabatu dute, aurre-
tik bilatutako soinuari jarraipena emanez.
Delay eta reverb gitarrak, baxu lodiak, ba-
teria prozesatuak eta autotune pixkatxo ba-
tekin, beraien “poz-rock” soina lortu dute.

Itzal Urangak eta Gartxot Unsainek egin
dituzte kantuen letrak, eta bakoitzak be-

reak kantatzen ditu, intimitatea eta sines-
garritasuna irabaziz. Unsainek galdetzen
du “ohiko bizi bat zer den”, 30 urterekin
gaztetasuna aldarrikatzetik urrun, nork
bere bidea egitearen garrantziaz.

Tame Impala usaina eman diote “abia-
dura handiko herrena” dioten kantuari,
“erraien bailaran sumendiak zulatzen” da-
bilen AHTren eta garaiko barne abiadu-
ren inguruko abestiari. *Ikusten nauzuenean*
kantuari ukitu indie festibaleroagoa eman
diote amaierako baxu funky eta guzti.

Diskoaren klimaxa *Bestalde eza* kantuan
topatu dut. Nostalgia ariketarik gabe, *Mu-
garri* diskoan (2013) kaleratutako *Berlin*
eta *Tartalo* kantuen errepiken estiloan,
etxean, kotxean eta kontzertuan eztarria
urratuz abestekoa. Behin eta berriz oi-
hukatzeko gogo, barruan mugitzen dizulako



MADELEINE
EZIN DENA
AUTOEKOIZPENA

mugitzeko dagoena: “Barne uda negu tan-
kerako udaberri / udazkenaren zai nago
/ ustez oinak lurrean zituen hosto hori /
(orain) hankapunttetan al dago?”.

Gatza Factoryk egindako azal ederra ai-
patu gabe ezin utzi. Udaberriaren koadro
bat dirudi, udazken paletaz margotuta.

Aitortuko dut, lehen entzunaldian ez
nauela harrapatu. Entzunaldiak zuen errua,
akaso aldaketa handiagoa espero nuelako.
Arreta eskaini ostean, ñabardurek eman
didate *Ezin Dena*-ren ideia zintzoagoa. Ha-
sierako ideiera noa berriro, bere bidea as-
matzen ari den proiektua delako lan hau.
Madeleine ez delako besterik, lagun talde
bat, euren –eta beraz gure– bizitzetara buruz
abesten. “Izuak hartu eta eseri / Ta eman
aukera su hari / Gure etxean / Hire etxean /
Atea zabalik da”. ●